

IRAGARKIA

229. ALDIZKARIA - 2021eko irailaren 30a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK BAZTAN

Deialdia, kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko 2021ean. Laburpena

DDBN (Identif.): 583751.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/eu/convocatoria/583751>).

Baztango Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 15ean egin bilkuran, onetsi zituen 2021ean Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko deialdi publikoa arautzen duten oinarriak.

Lehendabizikoa.–Onuradunak.

Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek hartzen ahal dituzte oinarri hauen xede diren dirulaguntzak.

Bigarrena.–Xedea.

Oinarri hauen helburua da Baztanen egoitza soziala duten kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzera zuzendutako dirulaguntzak norgehiagoka emateko araubidea jartzea.

Hirugarrena.–Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2021/09/deialdia.pdf>

Laugarrena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Eskaerak egiteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik

kontatzen hasita, 30 egun naturalen barnean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskabideak ezarritako epez kanpo aurkezteak onartuak ez izatea ekarriko du.

Baztanen, 2021eko irailaren 15ean.–Alkatea, Joseba Otondo Bikondoa.

Iragarkiaren kodea: L2113723